

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko martxoaren 13a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Altsasu • Auresku eta Soinu Zaharren txapelketa bihar eta etzi.

Angel Mari Loperena • Garraldako alkate berriak herrirako lanean jarraituko.



Zinemen lehia bizia Erriberan

Altsasu • Aurreku eta soinu zaharren txapelketak

Irunberri
•
Haur Kantari Txapelketaren bigarren kanporaketa bihar

Etorkizuna dantza eskolak antolatuta, Burunda pilotalekuan egingen dira bihar eta etzi

Etorkizuna dantza eskolak antolatuta, asteburuan 7-15 urte bitarteko dantzarien txapelketak jokatu dira, Altsasuko Burunda pilotalekuan.



Joan den urtean Altsasuko Burunda pilotalekuan egin zen Aurreku Txapelketako kanporaketa.
• AITZIBER ETXAIZ

LARUNBATEAN TXIKIEN AURREKUA eta soinu zaharren txapelketak jokatu dira, eta igandean, berriz, 12-15 urte bitarteko txanda izanen da. Soinu zaharren txapelketan, neskek parte hartuko dute, eta Altsasun egiten den lehenengo aldia izanen da.

Bihar arratsaldeko 17:00etan hasiko dira II. Aurreku Txapelketa eta Soinu Zaharren I. Txapelketa, Altsasuko Burunda pilotalekuan. Bertaratuek 7-15 urte bitarteko gazte txoen trebezia ikusteko aukera izanen dute. Guztira 30 partaide ariko dira bihar, eta beste hainbeste etzi. Aurreku Txapelketan parte hartuko duten mutil gazte txoenek bi dantza dantzatu dituzte: *Agurra* eta *Esku aldatzeko soinua*. Soinu zaharren txapelketan, berriz, neskek *Txakoli* eta *Ormatxulo* interpretatu dituzte. Igandean, aldiz, 12-15 urte bitar-

teko dantzariak hartuko dute lekukoa, ordu eta leku berean. Mutilek hiru dantza dantzatu dituzte: *Aurkez aurke*, *Esku aldatzeko soinua* eta *Agurra*. Neskek, aldiz, *Ormatxulo* eta *Ehun dukat*. Dantzarien lana epaitzeko orduan trebetasuna, dantzatzeko era eta erritmoa hartuko ditu kontuan epaimahaia.

Altsasuko Etorkizuna dantza eskolatik bi dantzari hartuko dute parte aurreku txapelketan: Asier Urizar altsasuarrak eta Iñigo Oiarbide beasaindarrak. Soinu Zaharren Txapelketan, aldiz, aurtan ez da Etorkizuna dantza eskolako ordezkariirik izanen.

Dena den, antolatzaileek diotenez, helburua partehartzea bultzatzea da. «Txapelketan parte hartzea animatu nahi ditugu. Gainera, gure eskolako dantza ikasle gehienak neskek izanik, aurtan Soinu Zaharren Txapelketa antolatu dugu, aurrerantzean ere neskek parte har dezaten», azaldu du Isabel Zornoza, Etorkizuna dantza eskolako guraso batzordeko kidea.

Dantza eskolaren lana

Altsasuko Etorkizuna eskola da euskal dantzan espezializatutako lehenengo dantza eskola. Diotenez, ez da halakorik beste

inon. Dantza eskola mar-txan jarri zenetik bost urte igaro dira. Dantza taldearen mailari eusteko helburua izateaz gain, argi ikusi zuten herrian dantza eskola baten beharra zegoela. Horrela, nagieria gainditu eta lanari ekin zioten. Aitzindariak ez darama gaur egun eskolaren ardurarik, eta gurasoek kudeatzen dute. Haien iritziz, eskola indarrean dago. «Lehenbiziko urtean 40 haurrekin hasi zen. Aurtan, berriz, 60 ikasle ari dira». Olazti, Bakaiku, Beasain eta Altsasuko 6-16 urte bitarteko haurrak ari dira dantza eskolan ikasten. Aste-lau orduz

entseatzeko dute, eta horietatik bi dantza klasikoak ikasten igarotzen dute. Etorkizuna dantza eskolak duen arazo larriena lokal falta da. Haurtzaindegiak erabiltzen zuten Navarro Villoslada ikastetxeak lokala eskaini zion Udalak dantza eskolari. Gurasoek, hala ere, ez dute gelarekin moldatzerik izan. Eskolako kideen arabera, ez da euren beharretara moldatzen. «Nahiko txikia da eta lanak egiten hastea ez du merezi», azaldu dute gurasoek. Beraz, herriko zoko guztietan barreiatu ematen dira eskolako klaseak: Lanbide Eskolako soinketa gelan batzuk, Labaderoan beste batzuk, eta alokatua duten mojen gimnasioan ere bai.

→ Amaia Amilibia

HAUR KANTARI TXAPELKETA-REN bigarren kanporaketa izango da bihar Irunberriko Arangoiti Ikastolan. Haur Kantari Txapelketa-ko kanporaketa arratsaldeko 4:30etan hasiko da eta guztira 20 partaide ariko dira kantari: hamalau talde, hiru bikote eta hiru bakarlarik.

Jakina denez, Haur Kantari Txapelketa iragan igandean hasi zen Lizarran. Lehenengo kanporaketa Lizarreria kiroldegian egin zen, eta ehun gazte txo aritu ziren kantu kantari, hamalau taldetan banaturik.

Bihar, Irunberriko oholtzara kantatzera igoko dira: herriko Arangoiti Ikastolako hiru talde, eta bikote eta bakarlarik bana; Goizuetako talde, bakarlarik eta bikote bana; Arano bakarlarik bat; Barañaingo Alaitz institutuko, Berako Jesusen Bihotza ikastetxe eta Ultzamako Musika Eskolako bina talde; Etxarriko eta Tafallako ikastolako talde bana, eta Arantzako bi talde eta bikote bat.

Hirugarren kanporaketa datorren larunbatean, hilak 21, izanen da Berriozarren. Orduan, hiru kanporaketak egin eta gero, jakinen da zein kantari pasatuko diren Haur Kantari Txapelketa-ko finalera. Finala apirilaren 5ean egingen da Iruñeko Gaiarre antzokian.

muga enea

MIKEL REPARAZ



Agure zaharrak aurpegira begiratu zidan. Begietara. «Kazetariak, orduan», esan zuen sabeletik atera bide zitzaion kurrinkadaz. Ondoren, autobusetik jaitsi zen, bastoiaz lagundurik Albainako kale nagusia zeharkatu, eta, herriko elkartearen paratu zuten kristalezko kutxan bere botoa sartzera zihoalarik, geldiarazi egin zuten. «Aizu», esan zion hauteskunde mahaiko idazkariak, «zure nortasun agiria behar dugu». Agureak kurrin egin zuen atzera ere: «Etxean ahaztu dut, baina Sasetako Gartzin naiz, Iñaki, ez al nauzu ba ezagutzen?». Idazkariak ezetz, nanik gabe ez zegoela deus egiterik, eta gizon gajoak arren ni naizela, la letxe! Bada ez, Sasetako Gartzik

Trebiño Nafarroa da

sekretupean gorde zuen igandean bere botoa. Inork ez daki baiezkioa ala ezezkioa eman nahi izan zion Trebiñoko Konderriko erreferendumari, baina gauza da inoiz ez dugula jakinen. Eta are gutxiago Gartziren emaztearena, senarrak eraman baitzuen haren botoa patrikan. Emaztea etxean geratu zen, bazkaria preparatzen, gizonak bien izenean bozkatzen zuen bitartean. Zer nan eta zer ostra...

Konderriko iparrak gogor jotzen zuen goiz hartan, eta elkartetik ateratzerakoan, eraso. Ehundaka kazetari gosetik agurearen gainera egin zuten salto, esklusibaren bila, aizu barka, eguneko anekdotaren eske, mesedez hitz pare bat, zuzeneko kondakizunaren erdiesterat.

Mikrofonoak on, Telemadrid, Canal Plus, sateliteen argi gorritxoak piztuta, bideozinta birjinak grabatzen, kazetarien besoak luzatuta, agurearen hitzaren esperoan, kurrinkadaren zain... Sasetako Gartzin hitz egitera zihoan, baina hitzik esan baino lehen, begietara so egin zidan atzera. «Kakatzarra», esan zuen, eta, kazetarien artean igerian, autobusera itzuli zen, Sasetara, bere emaztearen alborra.

«Trebiño Araba da» esaldiak apaintzen du Albainako elkarte. Gezurra.

Trebiño ez da Araba. Ez eta Burgos ere. Sasetako Gartziren boto itoak zioen bezala, Trebiño Nafarroa da. Antso erregearen garaietatik. Agurearen begiradak azaldu zidan hori.



ur dai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Susmagarria

Ernegaturik ibili nintzen atzo hamar minutuz edo. Kontua da denbora dexente eman nuela irakurtzen sofán eserita, eta altxatu nintzanean, sukaldera abiatzeko (ur baso bat edateko asmoarekin) ba... kaguen-dios!... ez nintzen bada ernegaturik sentitu? Badakizue: denbora eman duzue zangoak gurutzaturik, mugitu gabe, eta bapatean altxatzen zara eta... hara!... metro bakarra egitea kristoren sufrimendua da. Zango lokartuen kontu hori, bada-kizue. Barrezka ere hasten zara inolako arrazoirik gabe eta, okerrera seguruenik, pixka bat ematen du ez duzula zangorik edo zurezkoa dela, eskuarekin heldu eta tiraka ibili behar zare-lako zure gorputzarekin batera aurrera egin dezan. Bestela hortxe geldituko zen eta! Zango-tonto halakoa! Eta nire baitan marmarka esaten nuen: «Ernegaturik nabil!». Ozenki ere esan nuen nitz pixka bat harrituta, eta gero: «Redios! Euskaraz ongi ikasi dugu e Xabier? Ez da nolana hikoia 'ernegaturik nabil' esatea e? Kaguensos Xabil Sarrionandiak berak erabiliko al du esamolde hori? Nire zalantzak baditu e? Ez da nolana hikoia ez, ez!»

Ba horixe, *ernegaturik* nenenbilen eta harro ere bai. Euskaltegietan pasatutako urteak harrotzeko ondorioak ekarri baitituzte, euskaldun petopetoa bihurtu naiz, Euskalerrira Irratian esaten duten guztia ulertzen dut, irakasleak gero eta gehiago niri zuzentzen dizkit galdera zailenak eta abar... eta abar...

Ondotik horrelako susmo bat izan nuen, zera, susmo txar bat, ez bainengoen oso seguru ernegaturik nengoen ala ez.

Gero eta susmagarriagoa egiten zitzaidan, gainera. Orduan erabaki nuen hiztegiaren kontsulta egitea. Gaztelaniako hitzak hartu eta *C, Coj, Cojo*. Herren. Kaguensos!

Banengoen ni!

Ernegaturik ez baizik eta *herren* nenbilen!

Eskerrak ez nuela euskaltegiaren pasadizo hau aipatu. Bestela... nire kontura, ai ze barre-ak! ●

Lizarra

Gazte

Jardunaldien baitan, hainbat ekitaldi eginen dira asteburuan

LIZARRAKO UDALEKO GAZTE-riaren Batzordeak urterik urte antolatzen dituen Lizarra Gaztea jardunaldien baitan, hainbat ekitaldi eginen dira asteburuan. Gaur, *Zurekin ligatu nahi dut: amodioa eta sexua gazteen-gan* izenburupean, hitzaldi-etzabaida eginen da Julian Romano musika eskolan 20:00etan. Hizlaria Jose Luis Garcia psikologoa izanen da. Sexologian aditua eta hainbat libururen egilea da Garcia. Igandean, berriz, Lizarra elkarteen erakusketa eginen da Foruen Plazan 12:00etatik 14:30etara bitartean. Plazan elkarrekin egiten dutenaren berri emanen dute. Horretarako, informazio mahaia ipini eta hainbat ekintza eginen dituzte. Tartean, Lizarra Musika Bandak kontzertu bat eskeiniko du plazan, 12:00etan.

Bestalde, Gazteriaren Batzordeak apirilaren 4an Bilboko Guggenheim museora bisita egiteko bidala antolatu du 2.000 pezetaren truke. Izena 30 urtez behekoek bakarrik eman dezakete. Bestalde, datozen egunotan zenbait ikastaro jarriko dira martxan: bertzeak bertze, papera modelatzeko eta paper oreka egiteko tailerra, espeleologian lehenengo ezagutzak barneratzeko ikastaroa eta komunikazio eta talde dinamika ikastaroa.

→ Kristina Berasain

Lekunberri • Arruizko Txikiaren omenezko Legoa igandean

Lasterkaria hil zenetik aurten jokatu da lehen aldiz

ARRUIZKO TXIKIAREN ANTZERA, Lekunberri eta Azpiroz arteko bidea lasterka egingo dute hainbat kirolarik etzi. Horrenbestez, Euskal Herri osoan ezaguna izandako korrikalaria omenduko dute, eta berak ezarritako marka hobetzen saiatuko dira bide batez.

Lekunberriko Legoa izenaz ezaguna den proba, aspaldiko urteetan jokatu da, baina azken hauetan Arruizko Txikiaren omenezko proba izendatu dute lasterketa hau. Izan ere, Larraungo Bailaran izandako kirolaririk handienak izan zuten, urte askotan zehar, proba horretan egindako markarik onenaren ohorea. Berez, bertako jendearen artean oihartzun handia izan ohi zuten probak, baina aurten are xarmagarriagoa izango da. Izan ere, Juan Kruz Azpiroz zendu zenetik, igandekoa izango da jokatu den Lekunberriko I. Legoa.

Aurten sari ugari eta bereziak izango dira. Lekunberritik abiatu eta Azpiroztzen buelta eman ondoren, helmugara iristen den lehen korrikalariak 35.000 pezetako saria jasoko du, txapela eta garai-kurrarekin batera. Bigarrenak 25.000koa izango du saria, eta hirugarrenak 15.000koa. Baina, etxeokak beti etxeokak, eta lehendabiziko larraundarrarentzat 10.000 pezetako saria izango da, eta bigarrenak eta hirugarrenak ere izango dute beren garai-kurra. Sari gehiago ere izango dira: 1994an Andres Perezek ezarritako marka (17'43") hobetzen duenak 25.000 pezeta jasoko ditu. Bestalde, azken bi urteetako



Arruizko Txikiaren omenez urtero egiten den lasterketako partaideak, duela bost urte. ● MAILOPE

ohiturari jarraiki, lau larraundar biltzen dituen koadrila batek parte hartzen badu eta gehieneko epean helmugaratzen bada, axuri bat jasoko du ordainean. Partehartzaile guztiei, hori bai, kamiseta bat eta hamaiketako eman-go zale Gau-Txori elkartean.

Arruizko Txiki Handia

Tamainaz txikia baina merituz handia zen Juan Kruz Azpiroz lasterkaria. Arruizten jaio zen, eta hortik zetorkion ezizena: Arruizko Txikia. Bere markarik handienak lasterketetan egin zituen arren, beste zenbait kirol-tan ere ibilia zen. Esaterako, zenbait aizkora apustu egin zituen.

Bere bizitzako lehen apustua hemeretzi urte zituela egin zuen, Lekunberri. Atalluko Otxotorena zuen aurkari, orduan. Inguruko beste hainbat kirolarirekin ere aritu zen lehen harrezkerok. Bes-

teak beste, Leitzako Mujika eta Lasarteko Aldatz garaitu nahian izerditu zen sarritan.

Aurkari euskaldunak bai, baina atzerritarrek ere izan zituen. Hain zuzen ere, Gordon Brie ingelesaren aurka jokatu zuen apustu bat. Gordon Brie kirolari aparta zen nazioarte mailan. Miliako munduko errekorra berak eduki zuen denbora batez, eta bost kilometrotan ere bigarren denborarik onena harena izan omen zen. Hobe zelakoan edo, bi euskaldunen kontra jokatu zuen apustua, hamar kilometrotara. Txikiak egin behar zituen lehenengo bost kilometroak, eta Aldatzek azkenak. Azkenean, euskaldunak garaile. Txikiak 15'09"ko denbora egin zuen, eta Aldatzek, berriz, 15'11"koa. Marka horiek oraindik ez ditu inork gainditu.

→ Urko Aristi

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Arbizuar bat Japonian

Guaixe Sakanako hilabetekariko azken zenbakiak, Amaia Amilibiak Jesus Razkin kimikari arbizuarrari egin elkarrizketa jaso du. Elkarrizketa berezia da, gainera, posta elektronikoa erabiliz egin baitizkio galderak Razkini **Guaixe**-ko kazetariak, eta hark ere hala xe erantzun: «Arbizuko Jesus Razkin kimikariak ikerlan guztiz aitzindaria burutu berri du. Izurritei aurre egiteko intsektiziden erabilera alde batera utziko duen modu berri-tzailea hobetzen buru-belarri dabil gaur egun metodo hau abian jarri zuten herrialdean, Japonian hain zuzen ere. Arbizuar gazte hau ikertzen jarraitzeko beka eskuratu eta egun

Tokion dago. Bere arrebaren laguntzari eta komunikazioaren teknologia aurreratuenei esker posible izan dugu Jesusekin harremanetan jarri eta elkarrizketa egitea. Posta elektronikoa bidez **Guaixe** aldizkarian egiten dugun lehenengo elkarrizketa izan da.

Jesus Razkin bere ikerketa lanari buruz mintzatu da Sakanako hilabetekariko kideekin: «Nire tesian ikertu dudana intsektioen feromonak laboratorion nola sintetizatu izan da. Kontuan izan behar da konposatu hauek animaliak behar dituzten besterik sortutako produktuak direla eta aldiko oso kantitate txikia erabiltzen dutela. Beraz, in-

tsektioengandik feromonak eskuratzea oso zaila da, eta orain arte izurriteak borrokatzeko erabiltzeko moduko kantitateak lortzea ezinezkoa. Horregatik beharrezkoa da feromonen osaketa kimikoa eta egitura ezagutzeko, ondoren laborategian sintetizatzea gai izateko. Horrela nahi adinako feromona kantitateak lor daitezke».

Etxekoak, halaber, gogoan ditu arbizuarrak: «Bere herritik oso urrutira eta kultura ezberdinerara joaten den batek har dezakeena hartzen dut nik faltan: familia, lagunak, hizkera eta komunikazioa, Arbizu inguruko ba-soak, txuleta eta patxarana».

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Literaturaren barreneko ibilaldia eliz-egileen bidez (1)

Betolazako Juan Perezek Ripaldaren 1591.eko princeps-etik itzuli *Doctrina cristiana en romance y basquence*, Mitxelenak berreskuratu arte ezezaguna zitzaigun



Antso Eltso XVI. mendeko lehenbiziko euskal eliz-egilea dugu, nahiz bere *Doctrina cristiana y pasto espiritual del alma para los que tienen cargo de almas y para todos estados en castellano y vascuence* idazkia ezezaguna gertatu. Alde batetik, lan honen berri eman zigun Isasti historiagileak Iruñeko Adriano Anvers baitan 1561.ean atera zela zioskun, baina inprimagile flandiar hura Lizarran zegoen orduan, Iruñera 1568.era arte joan ez baitzen.

Betolazako Juan Perezek Ripaldaren 1591.eko princeps-etik itzuli *Doctrina cristiana en romance y basquence*, Mitxelenak berreskuratu arte ezezaguna zitzaigun, baina Bilbon atera zen 1596.ean, Pedro Kole Ibarraoarenean, Kalagorriko eta Galtzadako Pedro Manso Zuñiga apezpi-kuak aginduta.

Martin Kapanaga-Erdikoa Otsoa-Saola Labarrondo lizentziatu mañariarra eta Mañariko benefiziatuak (1602-1661) *Exposición breve de la doctrina christiana* tajutu zuen -Bilbon, Juan Azpirozenean, 1656.ean-. Hau ere, Geronimo Ripalda josulagunaren erdal dotrinaren itzulpena. Bigarren edizioa Dogso- nek egin zuen 1893.ean.

Itzulpena ez den zati bakarria Juan Joaniz Etxalaz -nafarra ote?- apezpiku euskaldunari eginiko eskaintza da: «icanik urietan, esagunceetan guichi iracurten eztaquienac, liburu onegaz eduguico dau baco- chac bere ecean maestraua iracastico deusana».

Bortuz bestaldera igaroz, Bernardo Gazteluzar josulagunaren *Eguia catholicac salvamendu eternaleren eguiteco necessario direnac, escaldunen favoretan, façoñ huntan moldatuac* ezin utzi aipatzeke -Paben, Erregeren inprimatzailea zen loannes Desparatz

baitan, 1686.ean-. Lan honetan aztertzaille euskaldun biren baimenak datoz, Ortzaizeko Basilio minoritak eta lagundiko Jakes Oihenardek eginikoak. Bukaera aldean infernuari buruzko elkarrizketa goxoa dugu: «-Helas! erretcen hari-nauc khar hunen barnean. -Creatura damnatua, lancoac ahantcia, cer da hire infernuu? Erraguc, erraguc, cer sofrितcen duc? -Cer aiphatuco darotcut? Erratez naiz penatcen, berriz erraten baditut, berriz naiz tromentatcen. Hela, hela! Segui ezgaitçatçula!».

Joxe Lezamik Mexikoko Maria Benavidesen etxean 1699.ean argitara eman *Vida del apostol Santiago el mayor con algunas antiguedades y excelencias de España especialmente de Vizcaya* izenburukoan aipaturik: «por refrescar la memoria de nuestra antiquísima lengua bascongada, la primera y propia de España, quise rematar este mi libro poniendo el padre nuestro y la ave maria y la explicación de los artículos en bascuence; esta explicación es la misma que compuso el doctor D. Nicolas de Zubia», Nikolas Zubia, *Doctrina christiana*, Donostia, Pedro Huarte, 1691. Kitto.

Bizargile baten semea, Alcalan ikasia, Madrilen eta Logroñon bizia, Tabirako eta Otxanditoko eskribau, eta, azkenik, Durangoko apezza izan zen Martin Artzadun Ubi-deak (1675-1741) *Doctrina Christianeen explicacinoa eusquera çein ofrecietan deusten euscaldun gustiat* ondu zuen -Gasteiz, Bartholome Riesgo Montero, 1731-. Larramendik bere *Coreografía*-n aipatua ere, behin baino gehiagotan


berrargitaratua izan da. Frantzisko Martinez Elizalde Gesalazko Muzkikoa zen. Josulaguna, Neoburgoko Mariana erreginaren aitorea izan zen, geroxeago, bere *Coreografía*-n aipatuko zuen Larramendi bezala. 1733.ean zendu zen Madrilen, Jaengo ikastetxe bateko zuzendaria izan ostean. *Apecendaco doctrina cristiana uscaraz apececo eta leitcen daquitenece eracusteco, eta explicatceco uscaldun puro leitcen estaquitenei aiec airus eta memorias icasteco* ondu zuen, Iruñean, Alfonso Burgeteren alarguntzarenean, 1735.ean. Berriki berrargitaraturik -



1994.eko FLV aldizkarian. Durangon 1704.ean jaiorik, aipatu Martin Arzadunek berak bataiatu zuen. Sendi leinargikoa, hiriko alkatea izana da 1734.ean, udal artxibozain 1737.ean, eta udal arautegien idazlea 1740.ean. Josepha Ortuzarrekin ezkondu zen lehen aldiz, eta alargundu ostean Angela Ramery Etxauzekin Iruñean. 1791.ean zendua. Diego Lorenzo Urkizu Zuazuren *Liburu Virgina Santissimien Errosario Santuena, nun dagozan bere esplicacinoa da amabost misterioen ofrezimentuac Errosarioa errezetandaneco da verso debotoac cantetandaneco, beste oracino asco da ama virginiñ letañiagaz* Iruñean agertu zen, Joseph Joatxin Martinez baitan 1737.ean. Liburu honek badu egileak berak erderaz eginiko aldaera are ezezagunagoa: *Novena a Maria Sma. que baxo (...) la denominación bascongada de Urbarri venera la villa de*

etorri a halean

Patziku Perurena



Joanak jaun

Izen sorgina da *Joan/a*, eta beti harritu izan nau euskal usuarioan duen ugaritasunak, eta atzenaldera, paper zahar artean nabilela, ez gutxiago. Dudarik gabe, izenik usuen da artxibotetan, errodetan, deituretan: *Joanes, Joanatxonea, Joanbeltz, Joanbeltzenea, Joanagorri, Joango, Joangonea, Joanto, Joantorena, Joanko, Joanenea, Joantxenea, Joanesenea, Joanikotena, Joanperitzena, Joanolpitzena, Joamartinena,...* eta beste mila modutan.

Zergatik ugaritasun hori? Bistan da, mundu zaharreko erlijiotik honuntz hasita Erromako Elizaren Inperioak eraginik. Izan ere, San Juanak izan baitira, nolabait esan, mundu barbaroa judukristautu dutenak. Aurrena *San Juan Bataiatzailea*, judutarren erlijioan aintzindari izandakoa, eta hurrena, *San Juan Ebanjelaria*, Jesukristoren apologistarik argiena. Hala, basajende, pagano edo hereje omen zirelakoak baitaiko ur santu edo kristoren mezu bidez San Juanek gonbertiarazi baitzuten. Gero, gure alderdi honetan, esate bateko, *Jerusalengo San Juanen ordenak edo San Joan de la Peña* delakoa ertaroan izan zuten eragin ikaragarriaz zer esanik ez. Eta han, zibillazioaren muga bero hartantxe, ugalduko zen *Joan* izena, sineskorren ohoretan eruz, eta sineskaitzen desohoretan franko.

Hala, Erronkarin demonioari (edo beren jainkoari) sorginek *Jayna* deitzen omen zitoten, *Juan* hitzaren metatesia eginez. Eta bailara eta testuinguru berean *Juanis* deitzen zitoten berriz apoei, Frantzi aldetik sartutako *Joanes* izenaren sorgin sonak eraginik. Baztan aldeko sorginek ere *Joanikot* deitzen zitoten beren Jaunari.

Nafarroa osoan hain ezaguna izan den *Ingurutxo* izeneko dantzari ere, sorgin kutsuagatik edo *Juanaren ttuntuna* deitu izan zaio Erronkari aldean, eta *Kokodantza* berriz Basabu-

ruko zenbait herritan. Corellan ostera, *Juanberinga* deitzen diote lastozko mamutxar folkloriko bati, eta hedaturaz, baita *belezomorro* edo *kokojende* zarpail orori ere. Eta *Joanagorri*, *Joanbeltz* edo *gisakoak* genituzke sail gaizto honetako beste mila *Joantzar*.

Eragin katolikoaren beste aztarna nabaria, mundu zabaLEAN San Joan egunak bereganatu zituen sineste ugariak genituzke; eta ez, inondik ere, euskaldun birjinon erliki huts. Ijitoek, esate bateko, San Juan eguna, haundiro ospatzen dute, suaren eta uraren inguruko erritoen bidez, urte guzirik zori ona eskatuz; eta ez dut aditu zaharra, Aranazko *San Juan Xar* izeneko iturri sonatura, joera haundia zutelakoa. Hala berean, San Joan eguna zen moroen arteko festegunik haundiena; eta guk bezelaxe, suak pizten zituzten kaltetan, gainetik jauzika arima garbitzeko; eta orrits, kanta eta dantza zaharrez ospatzen zuten egun haundia. Gainera, Espainiako musulmanek, udako solstizioari *alhanzaro* deitzen zitoten, eta *El Anzara* egun oraindik marrokiek; biak ere, gure *Olentzero* jatorri ilunekoaren antza haundia duten izenak. Eta nork uka euskal errege jatorriak para berri diguten ikazkin muturbeltz alfer tripa-zai eskazale honen moro traza nabaria?

Esanak esan, astakeria irudituko zaizu agian *Joan* sorgin horren metatesizat jotzea gure *Jaun* hitza; niri ordea sineste katoliko samarra iruditzen. Ez dakit inork aztertu duen, baina lehengoak lehengo, ertaroko testu zaharretatik hasi eta egundaino, hor ageri dira elkarren orpoz orpo: *Joan Azpilicuetta* alias *Jaunxarra*; *Juangoikoa* > *Jaungoikoa* > *Jangoikoa*; eta antzeko asko; edo oraindik Leiztan bertan aditzen ditudanak: *Jaunsarats* > *Yoansarats*; *Jaundegi* > *Yoandegi*... Filologo orojakile horien eskutan uzten ditut nere argi izpi ahulak.

Ziria

• Motxorrosolo •

Hamaikagarrenez

HAIMAKAKO GOBERNUAK ESKATU ESPETXE ZIGORRA. ARROTXAPEAKOAK Erkidego Lehendakarietzarako hamaikagarrenez aurkeztea onartu du, zigor gisan onartu ere. Ez aspaldi, kazetari batek, Carlos G. Nafarroako politikagintzaren eskenatokian ikustea defendatu zuen. Beharrak agintzen du. Herri komunikabideen alorrean behinik-behin behar handia dago. Erabateko kontrolik ez bada, galga jartzen jaloak. Ea behin betikoz konprenitzen duten. Ipar Euskal Herritik badute zer ikasi. Oraingoz.

Angel Mari Loperena

Garrairdako alkatea

«Izan ez duen herriaren sustengua gordetzen saiatu da Sales Santos»

Garrairdako taldeak Sales Santos alkatea buru zuela joan den otsailean udala utzi eta gero, eratu berria da ordezko udalbatzarra. Santosek eta harekin batera alde egin zuten bi zinegotziek Gobernuak herri-larreetarako dirulaguntzarik ez emana argudiatu zuten arren, ez da uste berekoa Angel Mari Loperena, herriko alkate berria. Dena den, eskatu duten informazioa aztertu arte ez da ausartu ezer aurreratzera.

• LUIS AZANZA

soslaia

AURREKO BI LEGEGINTZALDIETAN alkate izanak eman dion konfiantzarekin mintzatzen da alkate berria. Aetzak Santosoren kudeaketa txarra kritikatu du, eta, erantzukizun penalak ez izanda ere, politikoak badituela uste du.

■ **Udalbatzarraren parte batek, Garrairdako taldeak, eta haren buru Sales Santos alkateak dimititu eta gero, nola geratu da orain Udala?**

Nik ordezkatzen dudana Egieder kandidaturak erabaki zuen Udalaren kargu egitea. Kargua utzitako alkateak beste komunikabe batzuetan esan zuen Garrairdak Fuenteovejuna izan behar zuela eta inork ez zuela gidaritzat hartuko herriak hala nahi izan zuelako, eta hori ez da erabat egia.

■ **Alkateak zioenez, dimisioaren arrazoia Nafarroako Gobernuak herri-larreak hobetzeko dirulaguntzarik eman ez izana da. Egia da haiek argudiatutakoa?**

Baliteke zerbait egia izatea, baina nik uste haiek esandakoa nahiko alderdikoa dela. Guztiak hori egiten bagenu, ez litzateke udalik izan. Beti eskean gabilta eta oso gutxitan ematen zaigu. Beraz, zerbait lortzeko modua ez da dimititzea. Irnatasunez lan egiten jarraitu behar dugu, eta bideragarriak diren proiektuak aur-

keztu. Inongo alderdi politikotan afiliatuak ez gaudenez, gobernu horren ezezkia eta beste edonoren ohikoak dira mendialdeko herrietan.

■ **Dena den, Nafarroako Gobernuaren jarrera ez da erraz ulertzen. Herrialdean abeltzaintza gora doan herri bakanetako da zurea: badira 21 ustiategi, non 200 milioi pezeta (800.000 libera) inbertitu diren azken urteotan, eta Nafarroan abeltzainen batez besteko adina 50 urtekoa den arren, Garrairdan 38koa da. Zein izanen da zuren jarrera?**

Garrairdako abeltzaintza asko hazi da azken boladan, eta egun hazienda larriko 1.000 burutik gora ditu. Egia da abeltzaintzan garrantzia baduela, eta, seguruenik, Aezkoako bailaran ganadu gehien duen herria izanen da. Gainera, hazten ari da nabe berriak egiten ari direlako, eta gazteak dira horretan dihardutenak. Alde horretatik ez zitzaion arrazoirik falta aurreko alkateari. Dena den, azkenaldian herri-larreen inguruan elkarrizketa asko zuden baina idatzitako dokumentazio gutxi. Oraindik ikerketa txiki bat egiten ari gara, eta izan ditugu elkarrizketak Abeltzaintza eta Mendietako eta Nekazaritzako departamenduekin. Larreak egiteko

azken eskaera ofiziala 1995ekoa da. Hau da, aurreko udalbatzarra sartu zenekoa. Joan den udazkenean egin zen azken negoziazioa, eta orduan piztu zen Udalean ondoren etorri zena.

■ **Beraz, aurreko alkateak egia ez den zerbait kaleratu eta puztu duela esan daiteke.**

Bai. Batetik, herri-larreen afe-ran joan den astean izan genuen bilera bat eta 1998rako eskaera idatziz egin genuen, 1995etik ez dagoelako eskaera idatzirik departamenduan. Bestetik, beste komunikabide batzuetan agertutako elkarrizketetan herria eta gure hautagaitza armetan altxatuko zela esan dela ez da egia. Nahiko manipulatu da asmo hori. Izan ez duen herriaren sustengua gordetzen saiatu da Santos.

■ **Zer ondorio dakartza Garrairda herri-larreak moldatzeko dirulaguntzarik ez lortzeko?**

Lehenagotik ere zaila da abeltzainen egoera, baina horrek are gehiago txartzen du. Nik uste dut ez dela izanen arrazoia lehen sektorean norbaiten asmo enpresarialak eragozteko. Mendialdean bizitza errazagoa egiteko eta biztanleria egonkorra edukitzeko, egoera hobetu behar da. Eta egoera hobetzeko moduetako bat da herri-larre on batzuk izatea. Nafarroako herrien artean Garrairda da herri-larre gehien dutenetako

Aezkoako bailaran dago Garrairda, eta 240 biztanle ditu. Angel Mari Loperenaren kandidaturak herri-larreak egin nahi diren gain baten izena darama: Egieder. Aurreko bi legegintzaldietan alkate izan zen, 1995eko hauteskundeetan Sales Santosoren taldeak irabazi zuen arte. Kontxesi Pedroarena, Alfonso Pedroarena, Daniel Hirigoien, Jose Jabier Bidador eta Ana Mari Iriarterekin eginen du lan aurrerantz Udalean.

Ezkondua da eta alaba bat du, eta sortu zenetik Garrairdan bizi da. Gurasoak abeltzainak zituen arren, berak ez dio haien bideari jarraitu. Egun, ostalaritza du ogibide, eta herrian dagoen hotel bakarraren jabea da: Auñak du izena.

Ez du aisialdirako betarik. Hamaika urte daramatza batzordekide Bailarako Batzarrean, eta Garalurreko zuzendaritzan eta Pirinioetako Kontsultazioan ere ari da lanean. Loperenaren iduriko, «bizirik zauden bitartean zerbaitetan konprometuz hartu behar da», eta herriaren alde aritu ahal denean.

koa, lurraren %80 komunala baita.

■ **Sales Santosoren kargu uztea ikertzeko asmoa omen duzue. Zein neurri hartu behar dituzue?**

Erantzun zehatza emateko oraindik oso goiz da. Ikusteko asko dago, eta ezin dugu nolana hitz egin, oso afera korapilatsuak direlako. Itxaron behar dugu ahal dugun informazio handiena izan arte. Idazkariaren eta Nafarroako Gobernuko teknikarien informazioaren zain gaude. Hori lortutakoan, batzarra egiten dugu herriari azaltzeko egungo egoera nolakoa den. Herriak esanen du esan beharrekoa. Ez dut uste erantzukizun penalik izan de-

nik, baina alkateak ate handitik atera nahi izan du, atzeko atetik atera beharrean. Beraz, pentsatzen dugu erantzukizun politikorik izanen dela.

■ **Egun, nola dago Udalaren aurrekontua?**

Harritu gaituena da aurreko alkateak eta haren taldeak bazituela hitzemanak 300 milioi pezeta baino gehiago egiten zuten proiektuak, nahiz eta gaur egun Gobernuak hitzemandak 40 milioi-ko dirulaguntza izan. Seguruenik milioi gehiago lortu ahal izanen dira, baina ezin daiteke hain kas-karin ibili ballabide eskas eta aurrekontu gutxi dituzten herriekin.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Hemen nago jefa!! Just in time!! Aste oso bat eman dut erreportaiak pikatzen bainan azkenean hemen nago: Diskete hontan 320 folio sartu ditut!!!



Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

Zaharrak berri

AZKENEAN PLAZAN DA ARDANZAREN proposamena. Ajuria Eneko Itunaren bigarren aldiaren edota mahai horren beraren bizigarri gertatuko omen dena. Gure herrialdean, bizkitartean, eztabaidagai izan da agiri horretan Mendebaldeko euskal herritarren presidentek Nafarroaren aipamenik egin duen ala ez. Egitera ere alferrikakoa litzateke, EAEko buruak, gure zorionerako edo gure zoritxarrerako, ez baitu ahalmenik, den mendrena ere, Ekialdeko euskal herritarren artean.

Dena dela, iduri du badela aro ona bakegintzaz mintzatzeko, aski izan baita heriotz atentaturik gabeko boladaxka zernahi aterabide, arrainamendu, ekimen edo gisako hauspotzeko. Karrikako «borrokamolde» hori ere apalduxe dabil, nor denak agindua eman omen baitu oporrak hartzeko, zenbait txikizogile-neurriz gora, euren kasa ibili baitira. Hortaz, bortxaren aferaren sokak malguxeago iduri luke. Baina arront teinkaturik dago: Nafarroan Ansuategi gustora eta indarrean, baita UPN eta PSN ere, Tafallako gazte atxilotuen senitartekoen lekukotasun garrantzek ez baitute haien bihotz gogorra beratu, eta, oro har, bitariko indar hori eusten ari zaio Parlamentuko Giza Eskubideen Batzordea funtsgabetzeari. Era horretako gaiez HB arduratu da, eta HB baizik ez. Baina azken bolada honetan, elkarren arteko lanean ari dira molde horretako aferak jorrazten beste hiru talde: CDN, IU eta EA. Dena den, aste honetan berean ikusi dugunez, bizkor dirau indar nagusien mazeak. Baliteke hiru talde horien eskutik ere proposamenen bat mahairatzea Bakearen Ituna eragingarri izan dadin, baina ez dirudi Sanz makurraraziko dutenik.

Horra beraz, hamaikagarren aldiz, harat-honat bake proposamenen hotsak entzuten ari gara. Ea oraingoan gehixeago irauten duten.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- ▶ **Altzoain:** Contrabando, Tierra Santa, Escabajos eta Nahiara Valle Grande taldeek joko dute gaur Artsaia aretoan. Kontzertua 23:00etan izanen da.
- ▶ **Altzoain:** Purr eta Soviet Love taldeek joko dute bihar, 23:00etan, Artsaia aretoan.
- ▶ **Gares:** Obus, Saratoga eta Excalibur taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, Fundamental aretoan, 22:00etan. Sarrerak 1.500 pezeta balio du.
- ▶ **Burlata:** Anarko taldeak kontzertua eskainiko du datorren asteartean, Black Rose tabernan, 20:30etan.
- ▶ **Iruñea:** De dos en blues band taldeak joko du datorren ostegunean, 21:30etan, Terminal tabernan.
- ▶ **Zangoza:** Erramun Martikorenak kontzertua eskainiko du datorren asteazkenean, Kultur Etxean, 20:00etan.

ZINEMA

- ▶ **Iruñea:** Karrikiri elkarteak antolatutako zinemaldiko egitarauaren barruan Jose Anjel Rebolledoren *Betierako sua* emango da gaur Golem zinematokian, 20:00etan. Sarrerak 450 pezeta balio du.

ERAKUSKETAK

- ▶ **Iruñea:** Pello Azketaren margolanak ikusteko aukera dago Carlos III.a aretoan.

BESTELAKOAK

- ▶ **Beire:** Beireko Aterpetxeak udako antolatzen dituen ekitaldien egitaraua kaleratu berri du. Egonaldiez gain, batetik, taldeentzako ekitaldiak antolatu ditu, eta bestetik, gai bakarreko ikastaroak. Informazioa lortzeko eta erreserbak egiteko 74-00-41 telefonora deitu behar da.

- ▶ **Burlata:** Nafarroako Bertsolari Txapelketako lehengo saioa egingen da gaur musika eskolan, 22:00etan. Bertsolak kantatzera hauek igoko dira oholtzara: M. Arozena, N. Bruño, J. Arzellus, I. Ibarra, J. Leitza eta E. Fernandez.
- ▶ **Leitza:** Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren saioa egingen da etzi, 17:00etan, zinemaren. Bertsotan hauek ari-

ko dira: O. Estanga, B. Elizagoien, Laka, F. Mihura, E. Arozena eta I. Olaetxea.

- ▶ **Iruñea:** Datorren asteartean Eugenio Chicano margolaria bere lanak egin duen bidez ariko da, 19:30etan, Iruñeko Kutxaren egoitza nagusian (Armada Etorbidea, 2).
- ▶ **Iruñea:** Guatemala bake akordioak izan eta gero hitzaldia eskainiko du gaur Pili Yoldi


kazetariak, Navarrerria kaleko Zabaldi elkartean, 19:30etan.

- ▶ **Barañain:** Barañaingo Emakumeen Taldeak emakumea eta osasuna uztartzen dituen ikastaro bat antolatu du, asteazkenean egiteko. Izena emateko epea gaur bukatuko da, eta interesatuek Kultur Etxera joan behar dute, 19:00etatik 21:00etara.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini.....

baldin eta konformitatean bizi diren bi izaki harrapatzen badituzu, zaude seguru horietako bat ona dela



DOMINISTIKUN
ITURRI FLUORKOIAK
eta jauna zurekin